



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

PRENTSARAKO OHARRA
2016/04/25

Aldundiak, urritasuna daben pertsonentzako foru plan barria aurkeztu dau Batzar Nagusietan. 2019. urtera arte egongo da indarrean

Isabel Sánchez Robles Gizarte Ekintzako diputatu andreak, desgaitasunaren arloan legealdi honetan aurrera eroango diran beharreko ildoak aurkeztu ditu gaur goizean Batzar Nagusietan, berak eskatuta. Ildo horreek, Lurraldean Desgaitasuna daben Pertsonen Parte hartzea eta Bizi-Kalidatea sustatzeko bigarren Plana izenekoaren barruan sartzen dira. Plan horren xedea, diputatuaren berbetan, kolektibo horren “benetako parte hartzea eta bizi-kalidatea sustatzea” da.

Aldundiko arduradunak azpimarratu dauenez, “ibilpide orri hori”, “Bizkaiko hirugarren sektore sozialagaz batera egindako lanaren emaitzea” da. “Abangoardiako ikuspegi baten aurrean gagoz”, gizarte zerbitzuen sistema eta hirugarren sektore sozialaren eta Administrazio Publikoaren arteko alkarrekintza ulertzeko orduan zein zerbitzuok jasoten dituen pertsonen papera aktiboari jagokenez. Planak, desgaitasuna daben pertsonak hartutako konpromisoari erantzuten deutso, “beti gogoan izanda hareen ongizatea eta beharizanak, eta zelan gauzatu daikien guztiz euren bizitza-proiektua”, adierazo dau Sanchezek, Aldundiaren estrategiak “pertsona horreek aukera-bardintasuna eta irisgarritasun unibersala nagusi izango diran kulturarantz” bideratzeko.

Plana hurrengo hiru urteetarako lehentasunetan zentretan da, baina “bere ikuspegia epe luzekoa da”. “Kultur aldaketea” da, eta horrek sektorean behar egiten daben eragile “guztien” aldaketea eskatzen dau. Holan, pertsonarengan eta haren gaitasunetan jarten dau arreteta eredu honek, eta ez pertsonaren desgaitasunean edo mugetan. Eredu honetan pertsona “bere bizitza-proiektuaren protagonista da”.

BOST ARDATZ ESTRATEGIKO

Plana gizarte eraldaketako bost ardatz estrategikotan oinarritzen da. Lehenengoan oinarrituta, Aldundiak ahalegina egingo dau “Baldintza egokiak sustatzeko, Bizkaian desgaitasuna daben pertsonen euren autonomia gorena, inklusioa eta komunitatean parte-hartze aktiboa izan daiezan lortzeko”.

Bigarren ardatzean, Sánchez Roblesek “Benetako irisgarritasun unibersala eta guztientzako diseinua sustatzea” aitatu ditu, eta baita “aukera-bardintasuna eta pertsona desgaituenganako tratua egokia eta ez-baztertzaila be”.

Hirugarren ardatza, “Foru ardurapeko zerbitzu sozialen unibersaltasuna eta zerbitzuok eskuratzeko bardintasuna bermatzeko baldintza nahikoak eta egokiak sustatzean oinarritzen da”. Ganera, Gizarte Ekintzako Sailak aurrera egingo dau parte-hartze eta bizi-kalidaderako eredu ezarten komunitatean, bai eta sistemaren esku-hartzeko ereduaren eta pertsona ardatz dauen eta pertsonagaz egiten dan plangintza-metodologia aurrera erooten be.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Eta azkenengo ardatz estrategikoaren barruan, “Ekimen sozialeko erakundeen arteko lankidetzeari sustatzea, foru ardurapeko zerbitzu sozialean sistemaren orientazioan eta hedapenean (zerbitzuak emotea, plangintzea, barrikuntzea eta etenbako hobekuntzea...), herritarren arteko alkarrizketea eta ekimen sozialeko erakundeen interes orokorreko beste jarduerak batzuk” bultzatuko dira.

Holan, planak berak mekanismo jakin batzuk aurrez ikusten ditu desgaitasuna daben pertsonak eta familiek parte har daieen arlo honetan egiten diran politiken “prestakuntzan, gauzatzean, jarraipenean eta ebaluazioan”. Gizarte Ekintzako Sailaren datuak kontuan izanda, 2015eko abenduaren 31n, Bizkaian, autortutako desgaitasun mailaren bat eben “90.000 pertsona baino gehiago” egozan. Horreetatik “ia 65.000k” %33ko edo hortik gorako desgaitasun maila eukien.

BATZARRETAKO TALDEAK

Batzarretako taldeek “konpartidu” egin dabe Bizkaiko Batzarretako Gizarte Ekintzako batzordean aurkeztu dan planak azpian dauen “filosofia”. Bertan, sailak eta hirugarren sektoreak, esateko zeozer daben eragileen “bizitza kalidadean eta partaidetzan eta inplikazioan” zentretako erakutsi daben asmoa azpimarratu dabe.

Eduardo Andresek (PP) esan dauenez, bere taldeak planteetan jakozan ekintzak eta horreek hurrengo aurrekontuetan islatzeko modua aztertuko ditu. Josean Elegezabalel (Podemos Bizkaia) eskaria egin dau, zerbitzuen “prekarizazioagaz”, “beharginek jasaten dituen eta gero eta gehiago diran erasoakaz” edo sektoreko erakundeetan dagoan “gardentasun faltagaz” zerikusia daben eragile sindikalek eskatzen dabenari erantzuteko. Josu Unanuek (EH Bildu) barruko planaren eta sektoreko erakundeen ebaluazioaren ganeko eta parte hartzea eta ekintzen finantzaketara bermatzeko moduari buruzko galderara egin dau.

EAJ-PNV eta PSE-EE taldeek, euren aldetik azpimarratu dabenez, plana “albiste ona” da. “Pausu garrantzitsua emoten da, desgaitasuna daben pertsonak euren garapenean protagonista bilakatzen diralako”, azpimarratu dau Juan Otermin sozialistak, eta eragileek plana egiteko orduan izan daben “parte hartzea” eta planaren “zeharkakotasuna” azpimarratu ditu. Ildo berean, Jon Sánchez jeltzaleak planaren “parte hartzeko estiloa” eta “lupea erabilzailearen potentzialtasunetan jarten dauela” aitatu dau. Ganera, 2020. urtera arte Bruselatik prestau dan “Europako plan estrategikoari erantzuten deitso”.

Erantzuteko txandan, Isabel Sánchez Roblesek etorkizuneko gizarte eredia finantzetako moduaren aurrean dauen ardura adieraztu dau. Ardura hori Estaduko gobernu guztietan dago “kolore batekoak edo besteak badira be”. Horregatik eskaria egin dau, finantzaketaren gaian “danon arteko eztabaida leiala eta zintzoa” zabaltzeko. Podemos taldeari eskaria egin deitso lan arloa eta gizarte politikak “ez nahasteko”, eta “argi eta garbi” itzi dau Aldundiak arautegia beteten dala “bermatuko dauela”, baina “ez gara lan arloko harremanen protagonistak izan behar” gehitu dau.

Amaitzeko, plana batzarretako taldeen ekarpenen aurrean zabalik egongo dala esan dau diputatu andreak. Bertan, “behar egiteko lau mahai” sortzea dago aurreikusita, eragileek parte hartu daieen.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

ZAINDUZ PROGRAMEA ETA ADIMEN DESGAITASUN PROIEKTU PILOTUA LANTEGI BATUAKEGAZ

Saio berean, Aldundiko arduradunak Zainduz programearen une honetako egoerearen eta Gizarte Ekintzako foru saila Lantegi Batuakegaz batera, urritasun intelektuala daben pertsonen zahartzeari begira aurrera eroaten ari dan proiektu pilotuaren barri emon dau.

“Udalen” eskumenekoa dan pertsona zaintzaileei laguntzea emoteko Zainduz programari jagokonez, eta PP taldeari erantzunez, diputatu andreak esan dauenez programa hori “ondo zabaldua” dago. Lurraldearen “%79ra” heltzen da. Sánchez Roblesek “horren ezarpena zabaldu gura dau”, baina “ez dogu ahaztu behar borondatezko programea dala”. Programea lurralde osoan zabaltzea gaitza da, badagozalako euren laguntza programa propioak dituen udalak “Sestao edo Ermua, adibidez”.

Proposamenak aurkezteko epea irailaren 30era arte zabalik dauen aurtongo deialdian “barrikuntzak” sartu dira, udalerrri txikietan “zentretako helburuagaz”. Barrikuntza horreek 2016ko urtarrilaren 14ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean kontsultau daitezke.

Beste alde batetik, Sánchez Roblesek, adimen urritasuna daben pertsonak “zahartzen doazan neurrian” hareen bizi-kalidatea hobetzeko Lantegi Batuakegaz batera prestau dan proiektu pilotua “urte honetako bigarren erdialdean” amaituko dala azaldu dau.

Proiektuaren helburua, talde hori “gero eta urte gehiago” bizitzen dala eta, sortzen diran behar barrien aurreko erantzun eta tresna praktikoak diseinetea da, daborduko gero eta ohikoagoa dalako pertsona horreek 45 urte baino gehiago betetea. Proiektuak “balioa sortuko dau beste zentro batzuetan, eta beste Lurralde eta erakunde batzuetara zabaldu ahal izango da”, adierazo dau.

Bigarren txandan, eta oposizinoaren galderei erantzunez, proiektuan “800 pertsonak” hartzen dabela parte adierazo dau diputatuak. Bidaia honetan behar egiteko Lantegi Batuak erakundea aukeratu da, “enpleguko zentro berezien plazen erdia baino gehiago” sortzen dituan erakundea dalako. Erakunde horregaz sinatutako hitzarmena 200.000 eurotara heldu zan igaz. Eta aurton, Aldundiak 140.000 euro gehiago inbertiduko ditu, diru-laguntza izendun baten bitartez.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
25/04/2016

La Diputación presenta en Juntas Generales un nuevo plan foral para las personas con discapacidad que estará vigente hasta el año 2019

La diputada de Acción Social, Isabel Sánchez Robles, ha presentado esta mañana en Juntas Generales, a petición propia, las líneas de trabajo generales para la presente legislatura en materia de discapacidad, enmarcadas en lo que ha denominado el segundo Plan para la Participación y Calidad de Vida de las Personas con Discapacidad del Territorio 2016-2019 que tiene por objeto, según ella, “promover la participación efectiva y la calidad de vida” de este colectivo.

La responsable foral ha destacado que esta “hoja de ruta” es “fruto de un trabajo compartido con el tercer sector de Bizkaia”. “Estamos ante una visión de vanguardia”, tanto a la hora de entender el sistema de servicios sociales y la interacción entre el tercer sector y la Administración Pública, como en el papel de las personas destinatarias. El plan responde a un compromiso adquirido con las personas con discapacidad, “pensando siempre en su bienestar y en sus necesidades, y en el desarrollo pleno de su proyecto de vida”, ha señalado Sanchez, para la que la estrategia foral encaminará a estas personas “hacia una cultura de igualdad de oportunidades y a la accesibilidad universal”, ha dicho.

El plan pone el foco en las prioridades para los próximos tres años, aunque tiene “un enfoque de largo recorrido”. Es un “cambio cultural” que implica la modificación de “todos” los agentes que trabajan en el sector. Así, el modelo que subyace orienta la atención hacia la persona y sus competencias, antes que a su discapacidad o limitaciones. Este modelo concibe a la persona como “protagonista de su proyecto de vida”.

CINCO EJES ESTRATÉGICOS

El Plan descansa sobre cinco ejes estratégicos de transformación social. En base al primero de ellos, la Diputación tratará de “promover condiciones adecuadas para que las personas con discapacidad de Bizkaia alcancen su máxima autonomía, inclusión y participación activa en la comunidad”.

Como segundo eje, Sánchez Robles se ha referido a la promoción de la accesibilidad “universal y el diseño para todos”, así como “la igualdad de oportunidades y el trato adecuado y no discriminatorio hacia las personas con discapacidad”.

El tercer eje versa sobre el impulso de las condiciones “suficientes y adecuadas para garantizar la universalidad y el acceso equitativo a las prestaciones y servicios de responsabilidad foral”. Asimismo, el departamento de Acción Social avanzará en la implantación del modelo de participación y calidad de vida en la comunidad y la metodología de planificación centrada en la persona dentro del modelo de intervención del sistema.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Y como último eje estratégico, se impulsará “la colaboración de las entidades de iniciativa social en la orientación y despliegue del sistema de servicios sociales de responsabilidad foral (prestación de servicios, planificación, innovación y mejora continua...), el diálogo civil y otras actuaciones de interés general de las entidades de iniciativa social”.

Así, el propio plan prevé mecanismos concretos para que las personas con discapacidad y sus familias, participen en la "elaboración, ejecución, seguimiento y evaluación" de las políticas que se desarrollan en este ámbito. Según datos del Departamento de Acción Social, a 31 de diciembre de 2015, en Bizkaia había "más de 90.000 personas" con algún grado de discapacidad reconocido. De ellas, "casi 65.000" presentaban una discapacidad igual o superior al 33%.

GRUPOS JUNTEROS

Los grupos junteros han compartido la “filosofía” que subyace en el plan presentado en la comisión de Acción Social del parlamento vizcaíno, y en el que han destacado la intención del departamento y del tercer sector en poner el foco "en la calidad de vida, y en la participación e implicación" de los agentes que tienen algo que decir.

Eduardo Andres (PP) ha manifestado que su grupo estudiará las acciones que se planteen y cómo estas van a reflejarse en los próximos presupuestos. Josean Elegezabal (Podemos Bizkaia) ha pedido que se atiendan las peticiones de los agentes sindicales en lo que tiene que ver con la “precarización” de los servicios, “el aumento de las agresiones al personal” o la “falta de transparencia” en entidades del sector. Josu Unanue (EH Bildu) ha preguntado por la evaluación del plan anterior y de las entidades del sector y por cómo se garantizará la participación y la financiación de las acciones.

Por su parte, PNV y PSE-EE han subrayado que el plan es una “buena noticia”. “Se da un paso importante porque se pone a las personas discapacitadas como protagonistas de su desarrollo”, ha remarcado el socialista Juan Otermin, quien ha destacado la “participación” de los agentes en su elaboración y su “transversalidad”. En el mismo sentido, el jeltzale Jon Sánchez ha apuntado el “estilo participativo” del plan y el hecho de que “sitúa la lupa en las potencialidades del usuario”. Además, “responde al plan estratégico europeo” elaborado desde Bruselas hasta el año 2020.

En su turno de réplica, Isabel Sánchez Robles ha manifestado su preocupación por cómo financiar el modelo social del futuro, algo que impera en todos los gobiernos del Estado “sean del color que sean”, por eso ha pedido que en el tema de la financiación se debe de abrir un debate “franco entre todos”. A Podemos le ha invitado a "no mezclar" los ámbitos laborales y las políticas sociales, dejando “claro” que la Diputación será “garante” de que se cumpla la normativa “pero no tenemos que ser protagonistas de las relaciones laborales”.

Por último, la diputada se ha referido a que el plan estará abierto a las aportaciones de los grupos junteros. En el mismo se contempla la creación de “cuatro mesas de trabajo” para que los agentes participen.

PROGRAMA ZAINDUZ Y PROYECTO PILOTO DE DISCAPACIDAD INTELECTUAL CON LANTEGI BATUAK



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

En la misma sesión, la responsable foral se ha referido al momento en el que se encuentra el programa Zainduz, así como el proyecto piloto que el departamento foral de Acción Social está llevando a cabo en colaboración con Lantegi Batuak en relación al envejecimiento de las personas con discapacidad intelectual.

Respecto al programa de competencia “municipal” Zainduz de apoyo a las personas cuidadoras, y respondiendo al PP, la diputada ha señalado que dicho programa está “bien extendido”. Llega al “79%” del territorio. Sánchez Robles "aspira a aumentar su implantación" , aunque "no hay que olvidar que es un programa voluntario". La presencia del programa en todo el territorio es complicada porque hay ayuntamientos, “como por ejemplo Sestao o Ermua”, que tienen sus propios programas de ayuda.

En la convocatoria de este año, cuyo plazo para presentar propuestas estará abierto hasta el 30 de septiembre, se han incorporado “novedades” con la intención de “poner el foco” en los municipios pequeños, las cuales se pueden consultar en el boletín oficial de Bizkaia del 14 de enero de 2016.

Por otro lado, Sánchez Robles ha informado de que el proyecto piloto ideado junto a Lantegi Batuak para mejorar la calidad de vida de las personas con discapacidad intelectual "a medida que envejecen", concluirá "en la segunda mitad de este año".

El objetivo del proyecto es diseñar un conjunto de respuestas y herramientas prácticas de atención a nuevas necesidades como es el que este colectivo sea cada vez "más longevo", al superar estas personas los 45 años. El proyecto "generará valor en otros centros, y se podrá extender a otros Territorios y entidades”, ha manifestado.

En su segundo turno, y a preguntas de la oposición, la diputada ha precisado que en este proyecto participan "800 personas". Se ha elegido como compañera de viaje a Lantegi Batuak porque es una entidad que genera “más de la mitad de las plazas de los centros especiales de empleo”. El convenio con esta entidad alcanzó los 200.000 euros el año pasado. Y este año, la Diputación invertirá 140.000 euros más por medio de una subvención nominativa.